**¿Por qué se ha aprobado una normativa de regulación provisional?**
Porque una regulación definitiva requiere de la modificación de la actual ordenanza de tráfico de Ansoáin y ese es un proceso administrativo que necesita de más tiempo para su aprobación. Se siguen dando los pasos necesarios para realizar esa modificación definitiva.

**¿Cómo se va a delimitar la zona ZAR?**
En esta primera fase la zona regulada se va a delimitar mediante señalización vertical indicativa de los horarios. En una fase posterior, modificada la ordenanza de tráfico, se pintarán las rayas de aparcamiento en color verde y cada vehículo tendrá un distintivo emitido por el ayuntamiento para su identificación como residente o vehículo autorizado.

**Si en esta primera fase los vehículos no van a llevar distintivo, ¿Cómo se va a controlar el cumplimiento de los horarios?**
Mediante la lectura de las matrículas a través de un dispositivo colocado en un vehículo policial que estará conectado al censo de vehículos registrados en Ansoáin que dispone el ayuntamiento.

**¿Y si no estoy empadronada/empadronado en Ansoáin y mi vehículo tampoco?**
Tanto en esta primera fase como en la regulación definitiva es necesario que todas las personas residentes en Ansoáin que quieran aparcar en la zona regulada estén empadronadas y tengan su vehículo censado en el registro municipal de Ansoáin.

**¿Si no figuro en el padrón y no he regularizado el registro del vehículo para el día 15 de noviembre, se me va a sancionar?**
No, si se acredita que se han iniciado los pasos para regularizar la situación del padrón y la del registro del vehículo en Ansoáin..

**¿Si figuro en el padrón de ansoáin y mi vehículo está domiciliado también en ansoáin, tengo que hacer algo?**
No. Para esta primera fase de regulación que comienza el día 15 de noviembre la matrícula del vehículo ya consta en la base de datos municipal.

**¿Qué tengo que hacer si en casa tenemos más de un vehículo?**
Si todos los vehículos están regularizados en Ansoáin en los términos antes explicados, no hay que hacer nada. Si alguno de ellos no lo estuviera, se deben iniciar los pasos para su regularización.

**Estoy empadronado/empadronada en la zona regulada, pero utilizo un vehículo de empresa ¿Tengo derecho a aparcarlo en horario restringido?**
Sí, si se justifica que necesariamente se tiene que utilizar habitualmente un vehículo adscrito a la entidad donde desarrolla su actividad laboral o empresarial. Para acreditarlo, la empresa debe formalizar el documento disponible en la página web **www.ansoain.es** y hay que presentarlo ante el ayuntamiento.

**Tengo una actividad comercial en Ansoáin y el horario de restricción me afecta ¿Tengo derecho a aparcarlo en ese horario?**
Si además de tener una actividad comercial es vecino o vecina de la zona regulada podrá aparcar como tal. Si no se figura en el padrón municipal y la actividad comercial, industrial, profesional o de servicios se ubica en la zona regulada y se ve afectada por la restricción horaria, se podrán obtener hasta dos autorizaciones por actividad en los términos recogidos en la normativa provisional aprobada, que se puede consultar en la página web **www.ansoain.es**

**Debido a mi situación de salud o de incapacidad necesito asistencia por parte de familiares o de personal contratado ¿Podrán aparcar en horario restringido si no figuran en el padrón municipal?**
Sí, si se acredita mediante justificación documental de la situación. En este tipo de casos será necesario acudir a las oficinas municipales a solicitar un permiso especial para ello.

**¿Esta regulación del aparcamiento modifica las condiciones de uso de las zonas ZEL pintadas en rojo actualmente existentes?**
Las zonas de estacionamiento limitado ZEL actualmente existentes continuarán teniendo las mismas condiciones de uso que hasta ahora, pudiendo aparcar en ellas durante el horario establecido para las franjas de media hora tanto personas residentes como no residentes. Fuera de ese horario solo podrán aparcar personas residentes o autorizadas.

**¿Y si a pesar de la regulación puesta en marcha el día 15 continúan existiendo problemas de aparcamiento en determinadas zonas?**
Una regulación del aparcamiento es un proceso complejo y dinámico. Solo la puesta en marcha de las soluciones adoptadas puede dar la verdadera medida de su eficacia. Por lo tanto, cualquier decisión es susceptible de poder ser revisada para adaptarla a la realidad observada en cada momento.

**¿Dónde puedo dirigirme si este documento de preguntas y respuestas no resuelve alguna de mis dudas?**
Presencialmente a las oficinas municipales o en el número de teléfono **948 132 200**, en ambas opciones de lunes a viernes de 8,30 a 14,00 horas.

También a través de la siguiente dirección de correo **participacion@ansoain.es.** Además, se puede consultar la normativa aprobada y el plano de la zona regulada en la página web **www.ansoain.es**




# ANTSOAINGO APARKALEKUAREN ERREGULAZIOARI BURUZKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK

# PREGUNTAS Y RESPUESTAS SOBRE LA REGULACIÓN DEL APARCAMIENTO EN ANSOÁIN

**ansoain.es | 948 13 22 00**
Pl. Consistorial, 1,
31013 Ansoáin, Navarra

Antsoaingo Udala
Ayuntamiento de Ansoáin

# ANTSOAINGO APARKALEKUAREN ERREGULAZIOARI BURUZKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK

**Nola deituko zaio aparkatzeko eremu murriztuari?**
AME deituko zaio (aparkaldi murriztuko gunea) eta horrelaxe agertuko da erreferentzia egiten zaion agiri eta bide-seinale guztietan.

**Antsoaingo zer eremu hartuko ditu aparkatzearen erregulazioak?**
Herriko hiriguneko kale guztiak, salbu industrialdea eta herri zaharra. Harrobietako kaleko parkinga eta haur eskolaren ondoan dagoena ere erregulazioan sartu dira.

**Zer da AME gunea?**
Aparkatzea aldi baterako murriztua dagoen gunea da. Hau da, matrikula baimendua duten ibilgailuek bakarrik aparkatzen ahalko dute gune horretan eta ordutegi jakin batean, hots, antsoainen bizi diren pertsonek eta onetsi den araudian bildutako salbuespenek.

**Noiz sartuko da indarrean eta zein izanen dira murrizketa ordutegiak?**
Erregulazioa azaroaren 15ean sartuko da indarrean. Egun horretatik aurrera, antsoainen bizi diren pertsonek bakarrik aparkatzen ahalko dute gune erregulatuan eta, era berean, pertsona baimenduek, araudian bildutako salbuespenekin bat.

**Lanegunak:**
Asteleheneko 21:00etatik astearteko 09:00etara.
Astearteko 21:00etatik asteazkeneko 09:00etara.
Asteazkeneko 21:00etatik osteguneko 09:00etara.
Osteguneko 21:00etatik ostiraleko 09:00etara.
Ostiraleko 21:00etatik larunbateko 09:00etara.
Igandeko 21:00etatik asteleheneko 09:00etara.

**Eta asteburuan?**
Larunbateko 09:00etatik igandeko 21:00etara aparkatze librea izanen da.

**Zergatik ezarri da gaueko murrizketa-ordutegia?**
Ikusi delako horixe dela parte-hartze prozesuan ezarritako helburu nagusietako bi hobekien bateratu ditzakeen ordutegia: batetik, aparkatzeko espazioa berreskuratzea eta, bestetik, eguneroko jarduerari ahalik eta eraginik txikiena egitea; ez soilik merkataritza- eta ostalaritza-jarduera, baizik eta era berean familia edo gizarte harremanekin, etab. Zerikusia duen jarduera.

**Ez al zen logikoagoa eguneko murrizketa-ordutegia?**
Eguneko eta gaueko murrizketa-ordutegi guztietan emaitza berbera lortzen zen: hots, Antsoainen iraunkorki aparkatzera etorri den ibilgailuen ehuneko handi hori -gure herrian erroldaturik ez daudenak- desagertzea. Izan ere, ez gaueko ordutegi murriztuan, ez egunekoan, ezin izanen zuten iraunkorki egon aparkaturik Antsoainen, ez badute zehapenik jaso nahi. Beraz, behin ibilgailu horiek desagertutakoan, berriz ere tartea izan genezake ibilgailuak aparkatzeko diren premiak asetze aldera, baita egunean ere.

**Zergatik onetsi da behin-behineko erregulazio araudi bat?**
Behin betiko erregulazioa egiteko, Antsoaingo egungo trafiko-ordenantza aldatu behar delako, eta administrazio-prozesu horrek denbora gehiago behar du bere onesperenerako. Bitartean, horretarako beharrezkoak diren pausoak ematen ari dira.

**Nola zedarrituko da AME gunea?**
Lehen fase honetan, seinale bertikalen bidez zedarrituko da gune erregulatua, ordutegiak adierazteko. Ondorengo fasean, berriz, behin trafiko-ordenantza aldatutakoan, aparkatze-marrak berdez margotuko dira, eta ibilgailu bakoitzak ezaugarri bat izanen du, udalak egindakoa, antsoaingo bizilaguna dela adierazteko.

**Lehen fase honetan ibilgailuek ez badute ezaugarririk eramaten, nola kontrolatuko da ordutegien betekizuna?**
Matrikulak irakurriz, hau da, polizia-ibilgailu batean paratuko den gailu baten bidez. Gailu hori konektatua egonen baita Antsoainen erregistraturiko ibilgailuen erroldarekin. Errolda udalaren eskuetan dago.

**Eta Antsoainen erroldatua ez banago, ezta nire ibilgailua ere?**
Hala lehen fase honetan, nola behin betiko erregulazioan, nahitaezkoa da Antsoainen bizi diren eta gune erregulatuan aparkatzen duten pertsona guztiak erroldatuta egotea eta ibilgailua Antsoaingo udal erregistroan erroldatuta izatea.

**Erroldan ez banago eta ibilgailuaren erregistroa azaroaren 15erako erregularizatu ez badut, zehapena jarriko didate?**
Ez, baldin eta bi egoera horiek (erroldatua egotea eta ibilgailua Antsoainen erregistratzea) erregularizatzeko pausoak ematen hasi zarela erakusten baduzu.

**Antsoaingo erroldan baldin banago eta nire ibilgailua ere Antsoainen helbideratua badago, ezer egin behar dut?**
Ez. Ibilgailuko matrikula jasoa baitago udaleko datu-basean, azaroaren 15ean hasiko den lehen fase honetarako.

**Zer egin behar dut, etxean ibilgailu bat baino gehiago badugu?**
Ibilgailu guztiak Antsoainen erregularizatuak badaude, arestian azaldutakoarekin bat, ez da deus ere egin behar. Haietakoren bat ez badago, huraxe erregularizatzeko pausoak hasi beharko dira.

**Gune erregulatuan nago erroldatua baina enpresa-ibilgailu bat erabiltzen dut. Eskubidea al dut hura ordutegi murriztuan aparkatzeko?**
Bai, baldin eta justifikatzen baduzu nahitaez eta eskuarki erabili behar duzula zure lan- edo enpresa-jarduera garatzen duzun entitateari atxikitako ibilgailua dela. Horixe frogatze aldera, **www.ansoain.es** webgunean eskura dagoen agiria bete eta udalean aurkeztu beharko duzu.

**Merkataritza-jarduera bat dut Antsoainen, eta ordutegi murriztuaren eraginpean nago. Ba al dut hura ordutegi horretan aparkatzeko eskubidea?**
Merkataritza-jarduera edukitzeaz gain, gune erregulatuko bizilaguna bazara, bizilaguna zaren heinean aparkatzen ahalko duzu. Ez bazaude udal erroldan sartua, eta merkataritza-, industria-, lanbide- edo zerbitzu-jarduera gune erregulatuan kokatua badago, eta ordutegi murriztuaren eraginpean badago, gehienez bi baimen eskuratzen ahalko dira jarduera bakoitzeko, onetsi den behin-behineko araudian ezarritakoarekin bat. Araudia **www.ansoain.es** webean dago kontsultagai.

**Nire osasun egoera dela eta, edo nire ezgaitasuna dela eta, familien edo langile kontratatuen laguntza behar dut. Aparkatzen ahalko dute ordutegi murriztuan, udal errondan ez badaude?**
Bai, baldin eta egoera hori agirien bidez frogatzen bada. Horrelako kasuetan, udal bulegoetara joan beharko da horretarako baimen berezia eskatzeko.

**Aparkatzeko erregulazio honek aldatzen al ditu egungo AMG guneetako erabilera baldintzak, hau da, gorriz margotuak daudenak?**
Ez. Egungo AMG aparkaldi mugatuko guneetako erabilera baldintzak orain arteko berberak izanen dira.

**Eta hilaren 15ean erregulazioa abian jarri arren, zenbait tokitan oraindik ere aparkatzeko arazoak badira?**
Ibilgailuak aparkatzeko erregulazioak prozesu konplexu eta dinamikoak dira. Ezarri diren irtenbideak abian jartzeak esanen digu eraginkorrak diren ala ez. Horrenbestez, erabaki guztiak aldatzen ahal dira, une bakoitzean ikusten den egoerara egokitzeko.

**Nora jo dezaket, galdera eta erantzunen agiri honek nire zalantzetako bat argitzen ez badit?**
Udal bulegoetara bertara edota **948 13 22 00** telefono zenbakira.
Biak ere, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara.
Halaber, **participacion@ansoain.es** helbide elektronikoaren bidez.

# PREGUNTAS Y RESPUESTAS SOBRE LA REGULACIÓN DEL APARCAMIENTO EN ANSOÁIN

**¿Cómo se va a denominar la zona restringida de aparcamiento?**
El nombre que se adopta es el de zar (zona de aparcamiento restringido) y así figurará en todos los documentos y señales viarias en los que se le haga referencia.

**¿A qué zonas de Ansoáin va a afectar la regulación del aparcamiento?**
A todas las calles del casco urbano de la localidad, salvo el polígono industrial y el pueblo antiguo. El parking de calle canteras y el que está contiguo a la escuela infantil, también entran en la regulación.

**¿Qué es una zona ZAR?**
Un área en la que temporalmente está restringido el estacionamiento, donde solamente podrán estacionar durante el horario establecido a tal fin los vehículos con una matrícula autorizada, en este caso, personas residentes en Ansoáin y las excepciones recogidas en la normativa aprobada.

**¿Cuándo entrará en funcionamiento y cuales van a ser los horarios de restricción?**
La regulación entrará en funcionamiento el lunes 15 de noviembre de 2021. A partir de esa fecha, en los siguientes horarios, solo podrán aparcar en la zona regulada las personas residentes en ansoáin y las personas autorizadas en base a las excepciones recogidas en la normativa.

**Días laborables (Solo residentes y autorizadas):**
De las 21:00 horas del lunes a 09:00 horas del martes.
De las 21:00 horas del martes a 09:00 horas del miércoles.
De las 21:00 horas del miércoles a 09:00 horas del jueves.
De las 21:00 horas del jueves a 09:00 horas del viernes.
De las 21:00 horas del viernes a 09:00 horas del sábado.
De las 21:00 horas del domingo a 09:00 horas del lunes.

**¿Y el fin de semana?**
De las 09:00 horas del sábado a las 21:00 horas del domingo el aparcamiento será libre.

**¿Por qué se adopta este horario de restricción nocturno?**
Porque se entiende que es el que mejor puede conciliar dos de los principales objetivos plasmados en el proceso participativo desarrollado: recuperar espacio de aparcamiento y que la actividad diaria se vea lo menos afectada posible, no solo la actividad comercial y hostelera, sino aquella que tiene que ver con las relaciones familiares, sociales, etc.

**¿No era más lógico un horario de restricción diurno?**
En cualquiera de los dos horarios de restricción, tanto diurno como nocturno, el resultado principal obtenido sería el mismo: que el porcentaje elevado de vehículos que han venido a aparcar de manera permanente a Ansoáin y no están censados en nuestro pueblo desaparecería, porque ni en el horario restringido nocturno ni en el diurno podrían permanecer aparcados de manera permanente en Ansoáin si no quieren ser sancionados. Desaparecidos esos vehículos de personas no residentes en Ansoáin, se recuperarían plazas de aparcamiento tanto de noche como durante el día.